

Gobernuak kurdui Gasteizen biltzen uzteko erabakiaren kontrako errekurtsua kendu du

Hala ere, errekurtsua berriz ere aurkezteko prest daudela adierazi du Acebesek

Erredakzioa / Donostia

◀
Espainiako Gobernuak kurduen Gasteizko bileraren kontra jarritako errekurtsua kendu du Auzitegi Konstitu-

zionaletik. Kurduen erbesteko parlamentarioei bilera uztailean egiteko baimena eman zion Eusko Legebiltzarrak —Legebiltzarrean saiorik ez zegoenean—, baina ez zen bilerarik

egin. Espainiako Gobernuak dioenez, bilera egin ez denez, «ez da Estatuaren eskuduntzen urraketa egon», eta errekurtsua kentzea erabaki du.

ESPAINIAKO GOBERNUKO Ministroen Kontseiluak irailaren 3an hartu zuen errekurtsua kentzeko erabakia. Ordurako hasita zegoen ikasturte politiko berria, eta Administrazio Publikoetako Ministeriotik Efe agentziari esandakoaren arabera, hori da errekurtsua kentzearen arrazoia. Gobernuaren arabera, bilera egiteko ezarritako epea pasa denez, esan daiteke «Estatuaren konpetentziak ez direla urratu».

Eusko Legebiltzarrak Kurdistango Parlamentuaren bilera uztaileko baimentzea erabaki zuen, osoko bilkurarik ez egotean errazagoa baitzen bilera egitea. Baina kurduak bilerarik egin ez dutenez, Gobernuak uste du «kontrobertsiarako arrazoia» desagertu egin dela.

Gobernuak, Konstituzionalean errekurtsua jartzean, argudiatu zuen Legebiltzarrak Estatuaren eskuduntzak urratzen zituela nazioarteko politikaren alorrean. Konstituzionalak, orduan, Legebiltzarren erabakia eten behar izan zuen. Izan ere, Konstituzioak dio erakunde autonomikoen hartutako erabakiak eten egin behar direla, Gobernuak inkonstituzionaltasun errekurtsua jartzen duenean.

Jaurlaritzako Lehendakariordetzatik salatu dute «berriro ere Konstituzioak Espainiako presidenteari ematen dizkion pribilegioen



Juan Maria Atutxa, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, eta Yaser Kayak, Kurdistango erbesteko Parlamentuko presidentea, parlamentario kurduak Euskal Herrira egindako bisitan.

gehiegizko erabilera» egin dela. Gobernuak, gainera, ez du pertsonalki eman hartutako erabakiaren berri. Konstituzionalak berak jakinarazi dio Legebiltzarrari. Jaurlaritzaren iritziz, harri-garria da «errekurtsua jartzean eman zitzaion oihartzuna eta errekurtsua kentzeko isiltasuna».

Konstituzionalari gaia aztertzeo eskaera

Lehendakariordetik Efe-ri adierazitakoaren arabera, Jaurlaritzak gaia sakonean aztertzeo eskaera egin diezaioke Konstituzionalari. Lehendakariordetzatik dienez, Jaurlaritzak «aztertu

egingo du Konstituzionalari sakoneko auziari buruzko iritzia bat eskatzea komeni den, etorkizunean berriro ere gauza bera gerta ez dadin». Izan ere, errekurtsuaren gaineko iritzirik ematen ez badu, gauza bera gerta daiteke berriro.

Izan ere, Angel Acebes Administrazio Publikoetako ministroak adierazi zuenez, ez dute baztertzen beste errekurtsu bat jartzea, Legebiltzarrak bere erabakiarekin aurrera jarraitzen badu. Jaurlaritzaren ustez, errekurtsua kentzeak erakusten du errekurtsua «kurduen bilera galarazteko aitzakia soila» zela, eta Gobernuari ez zaiola interesatzen Konstituzionalak bere iritzia ematea.

EAJk Gobernuak «iruzur» egin duela dio

■ EUSKO LEGEBILTZARREAN Kurduen bilera egitearen alde bozkatu zuten alderdiek —EAK, EAJk, EHk eta IU-EBk— gogor kritikatu zuten atzo Espainiako Gobernuak.

EAJko legebiltzarkide Xabier Ormaetxeak Konstituzioak Gobernuari ematen dizkion aukerekin «iruzur legala» egitea

egotzi zion; erakunde autonomikoen erabakiak eteteko «pribilegioa» erabiltzea, alegia. Ormaetxeak dioenez, «berriro ere beldurra izan dio Konstituzionalaren erabakiari, euskal erakundeek nazioarteko alorrean duten ekintza ahalmena berrets zezakeelako».

EAJko kideak,

bestalde, Jaime Mayor Orejak eta hedabide espainiarrek euskal erakunde eta alderdien kontra egiten duten «lintxamendua» salatu zuen.

EHren iritziz, gertatutakoak Espainiako Gobernuak Euskal Herriak subiranoki hartzen dituen erabakiekiko duen «errespetu fal-

ta» erakusten du. Bestalde, EHk esan zuen errekurtsua jartzeko erabakia ez zegoela «arrazoi juridikoetan oinarrituta», eta «erabat politikoa» izan zela. EAJko Jon Goikoetxeak gauza bera iritzi zion. Haren ustez, gainera, kanpo politika ez da Gobernuaren eskuduntza «esklusiboa».

Erakunde guztien laguntza jasotzen saiatuko dela esan dio Rabanerak Arzalluzi

■ *Rabanera dagoelako jaso dituela zenbait laguntza adierazi zuen Arzalluzek*

Erredakzioa / Gasteiz

RAMON RABANERAK, Arabako Diputatu Nagusiak Arabako proiektueta-rako diru laguntzak jasotzeko erakunde guztietan egingo dituela ahaleginak adierazi zuen atzo, era honetan Xabier Arzalluz EBBko lehendakariaren hitzei erantzuna emanez.

Arzalluzek adierazi zuenez, diputatu nagusi karguan Rabanera egoteak Arabak zenbait laguntza jasotzea ekarriko du, «baina hori ez da politika egitea». Arabako ahaldu nagusiak erantzun zuenez, Arzalluz Arabara horrelakoak esatera etortzen bada, arabarrek beste eredu politiko batzuen aldeko apostua egiten jarraituko dute.